



**2022KO URRIAREN 24KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko urriaren hogeita lauan, arratsaldeko bostak eta hamarretan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko urriaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 52 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA LAU MILA ETA BERROGEI euro ETA BERROGEITA ZAZPI zentimo ===== (84.040,47 €)takoa onartzea erabaki da.

**III.- PARROKIA ETA IKASTOLAREN ARTEAN AGAUNTZA ERREKAREN GAINEAN OINEZKO PASABIDEA OBRAREN 4. OBRA EGIAZTAGIRIA.-**

Parrokia eta Ikastolaren artean Agauntza errekaaren gainean oinezko pasabidea obraren obra zuzendaritza daraman Amaia Salaberria Azantza bideetako ingeniariak, Salaberria Ingenieritza S.L. enpresakoak, lanen laugarren obra egiaztatzea egin du. Laugarren obra egiaztatzearen honen zenbatekoa LAU MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST euro ETA BERROGEITA HIRU zentimo (4.775,43 €) gehi B.E.Z.ri dagokion MILA ETA BI euro ETA LAUROGEITA LAU zentimo (1.002,84 €) da, guztira BOST MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI euro ETA HOGIETA ZAZPI zentimo (5.778,27 €).

Obra ziurtagiri honek udal teknikariaren oniritzia du.

Bestalde, Joxemai eta Maialen zinegotziak (EH Bildu) abstenitu egin dira proiektuarekin bat egiten ez dutelako.

LAZKAOKO  
UDALA

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzios (EH Bildu), laugarren obra egiaztatze hain onartu egin du.

Honez gain, Alkateak obra hau burutzen ari den DIEZ Y COMPAÑÍA S.A. enpresarekin sinaturiko kontratua suntsiarazteko prozesua hasi dela adierazi du, horretarako arrazoi nagusiak azalduz.

#### IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Oin Arin Dantza Taldea  
2022ko ekainaren 19an, Dantzari Txiki egunez, bertan parte hartu zuten guztientzat plazan bazkaritarako paella bat egin zutela eta, Oin Arin Dantza Taldeari gastuengatik 1.300 €ko diru laguntza onartzea.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

- Lazkaoko Antzar Konpartsa  
Lazkaoko buruhandi eta erraldoiak urriaren 7, 8 eta 9an Kataluniako San Feliu de Llobregateko festetara gonbidatuta joan zirela eta, Lazkaoko Antzar Konpartsari 459,98€ko erregai eta autopista gastuak ordaintzea onartzea.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

#### V.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara Batzordetik Tokiko Gobernu Batzarrera diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, honako erabaki hau hartu da:

- Ikastolako umeen gurasoek euskara ikasteagatiko diru-laguntzak.-  
2022/2023 ikasturtean ikastolako umeen gurasoek euskara ikasteko ikastaroetan parte hartzeagatiko 6.120€ko diru-laguntzak ematea. Bi ikastaro ezberdin daude, bakoitzaren mailaren arabera

- 1.- Goizeko taldea. A1 maila. Astelehen, astearte eta asteazkenetan 9:15etatik 12:00tara, 12 pertsona. 285€ pertsona bakoitzeko, 3.420€ guztira.
- 2.- Arratsaldeko taldea. A2/B1 maila. Astelehengatik ostegunera 14:30etatik 16:00c-tara, 12 pertsona. 225€ pertsona bakoitzeko, 2.700€ guztira.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.

- Euskara ikasteagatiko diru-laguntzak.-  
2022-2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei diru-laguntza ematea. Hiru ikasle dira, bere espedientean dauden datuen arabera, eta guztira 955,00 € emango dira.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.

#### LAZKAOKO JARDUERA EKONOMIKO ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-



Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko urrian martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei lehen ordainketa egitea:

<b>Merkataria</b>	<b>Zenbatekoa</b>
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	1.655,00 €
OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI)	1.740,00 €
OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI)	320,00 €
IGONE ARAMENDI AMENABAR (XANU)	2.100,00 €
NEKANE GARMENDIA Y OTRA CB (GARAIZ)	6.895,00 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>12.710,00 €</b>

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

**VII.- LANDALURREKO DIRULAGUNTZAK.-**

Landa lurreko batzordetik baseritar ekoizleei diru-laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- X. Basherry eguneko azokako partehartzaileei.-

2022ko irailaren 25ean, X. Basherry Egunean, azokan animalia, barazki eta erakusketa postuak jartzeagatik, guztira 4.685,00 €ko diru-laguntza ematea, bakoitzari bere espedientearen dagoen zerrendan azaltzen den zenbatekoaren arabera.

**VIII.- OSASUN ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK.-**

Alkatetzatik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru-laguntza hau onartu du:

- Lau Katu Lazkao - Katuen babeserako elkarte.-

Bere jarduera babestu eta diruz laguntzeko, 2022ko aurrekontuan aurreikusitako 3.000 €tatik, 2.000 €ko diru-laguntza ematea.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 481.01.311.00 partidatik egingo da.

**IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-**

Ez da galderarik edota erregurik izan.

**X.- BILERAREN AMAIERA.-**

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak laurden gutxiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

